

Urtekaria 2001

Busturialdea-Lea Artibai

LEKEITIO

Urteko kronologia

Martia

24 • 'Zer esana' aldizkariaren eguna

Zer Esana aldizkariak egun beteko ekitaldia antolatu eban martian. Herriko hainbat kultur, kirol eta gazte taldek, aldizkari-koen gonbiteari erantzun, eta euren eskaintzea erakutsi eben. Ekitaldiak argitalpenaren lehenengo urteurrena ospatzeko be balio izan eban.

Apirila

4 • Saharara osterea eta ludotekea

Ikastolako eta institutuko 20 lagun Saharan egon ziran apirilean. Ludoteka proiektu bat martxan ipini eben.

25 • Txalupa barria, aspaldiko partez

Agurtza berri txalupea Lekeitio-ko uretan dago joan zan apiriletik. Herritarren artean ikusmin handia eragin eban itsasontzi barriak. Izan be, 30 urte dira azkenengo txalupa egin ebenetik.

Maiatza

10 • Sendagileen alkartea sortu dabe

Udabarrian alergiaren ganeko jardunaldiak egin ziran. Ekime-



Hegaluzearen I. Astea

Hegaluzearen I. Astea antolatu eban Lea-Artibai Amakomunazgoak, Lekeitio, bagilaren 25etik 29ra bitartean. Herriko hamahiru alkarteren laguntzeagaz ekitaldi oparo eta ederraz gozatzeko aukera eduki eben lekeitiarrek zein bisitariek. Ekitaldi ugari antolatu eben eta jai astea-ri amaiera emoteko azoka antolatu eben.

na Lekeitio-ko Sendagileen Alkartea antolatu eban. Holan- te emon zan ezagutzera alkar- te sortu barria.

27 • Hondartzako Futbol Txapelketeak 25 urte

Lekeitio-ko hondartzako futbol txapelketeak 25 urte bete ditu aurten. Hori dala eta, argazki zaharren erakusketea prestatu eben maiatzaren 27an, jentea- ren laguntzeagaz. Ganera, al-

dizkari berezi bat atera eben ur- teurrena gogora ekarteko.

Bagila

7 • Galtzeko arriskuan dagozan berbak batzen

Lekeitio-ko berbak lan taldearen lehenengo beharrak argia ikusi dau aurten. Galtzeko arriskuan dagozan berbak berreskuratu nahi ditue. Lehenengo alean

itsasoko berbak batu ditue. Di- noenez, «nagusien ahotan bai, baina gazteenetan ez dira en- tzuten berba horreek, eta horri buelta emon beharra dago».

23 • Hegaluzeren I. Astea, arrakasta handikoa

Bagilaren 23tik 28ra, Hegaluzere-aren I. Astea antolatu eban Lea-Artibai Amakomunazgoak, Lekeitio. Azokeagaz amaitu eben jai astea. Hainbat lagun

hurreratu ziran hegaluzea aho- ra eroatera. Herriko hamairu al- karteren laguntzeagaz ekitaldi ederraz gozatu ahal izan eben lekeitiarrek zein bisitariek.

24 • Zinea barriro be zabalik

Urte bian zarratuta egon eta gero, Ikusgarri zine aretoa ba- rriro be zabaldu dabe bagilean. Lehengoak baino jarrileku gi- txiago ditu, «baina soinu hobea dauka», dino Benito Ansola bi- kario eta Lekeitio-ko Zine eta Bi- deo Bilerako buruak.

28 • Berdeguneen arautegia landu dabe

Udalak berdeguneen ganeko araudia egin dau, zuhaitzen in- bentarioa egin eta gero. Bere ezaugarriko herrien artean, le- henengo esperientzia da Lekei- tiokoa. Hainbat arlo ikutzen dira arautegian. «Zuhaitzei egin behar jaken jarraipena eta tra- tamenduaren ganeko kontuak argi gelditu dira. Beharra errez- tu egingo da», nabarmendu dau Udaleko ordezkariak.

Garagarrila

28 • Estudiantinearen bigarren diskoa kalean da

Ia hoge urte pasau dira Estu- diantineak lehenengo diskoa kaleratu ebanetik. Udan ikusi dau argia bigarren bildumeak.



Neuria, zeuria,
geuria,
Euskara danon
arduria

**LEKEITIOKO
UDALA**



AURRERA
EGUNKARIA!

**MENDEXA'KO
UDALA**

www.leaibarra.com

GIZABURUAGAKO

UDALA

*Euskarak
hainbat luzaroen iraun dagian*

www.leaibarra.com



*Euskararen
alde!*

**AMOROTOKO
UDALA**

www.leaibarra.com

ELBI

Supermerkatua

Zorionak
Egunkaria

Eusebio M. de Azkue z/g
Tel.: 94 6841900 LEKEITIO

**ESPARRU
TAILERRAK**



CITROËN ZERBITZUA

Esparru, z/g
BERMEO

Tel.: 94 688 49 00
94 688 46 30